



Aretxabaletako
Udala

**ARETXABALETAKO UDALAREN EMAKIDA BITARTEZ EGINGO DEN, ARETXABALETAKO
KIROLDEGIAREN KUDEAKETA OSOAREN ESLEIPENERAKO PLEGU TEKNIKOAK.**



AURKIBIDEA

0.- Aurrekariak:

1.- - 1. Kapitulua.- Kontratuaren oinarriak.

- 1.- Kontratuaren helburua.
 - 1.1.- - Kontratuaren helburua.
 - 1.2.- Kudeaketa eremua.
 - 1.2.1.- Zerbitzuen kudeaketa:
 - a) Sorospen Zerbitzua
 - b) Kirol Jarduerak emateko zerbitzua
 - c) Harrera zerbitzuaz
 - D) Hiru zerbitzuek komunean dituzten ordutegiak eta xedapenak
 - e) Derrigorrezko erreserbak
 - 1.2.2.- Instalazioen kudeaketa.
- 2.- Emakida epea.

2.- II. Kapitulua. Gauzatze Baldintzak

- 3.- Gauzatze Baldintzak
 - 3.1.- Baldintza orokorrak.
 - 3.2.- Aretxabaletako udalak zerbitzuak erabiltzea.
 - 3.3.- Kirol eta fisiko izaerarik ez duten jarduerak
 - 3.4.- Langileak
 - 3.5.- Aretxabaletako Udalari eman beharreko informazioaz.
 - 3.6.- Jendeari eman beharreko informazioaz eta publizitateaz.
- 4.- Baldintza ekonomikoak
 - 4.1.- Kanona
 - 4.2.- Emakidadunaren ordainsaria
- 5.- Kudeaketaren erregimen ekonomikoa.
 - 5.1.- Ustiapen-kontua:
- 6.- Inbertsioak



0 KAPITULUA.- AURREKARIAK

Aretxabaletako udala, ARETXABALETAKO KIROLDEGIA izena daraman eraikinaren eta bertako instalazioen titularra.

Eraikinen eta kirol instalazioen titularitate instrumentalaren kaltetan gabe, ARETXABALETAKO KIROLDEGiko zerbitzuen emakida Aretxabaletako Udalaren eskumenekoa da; berak erabaki du, kudeaketa enpresa bat kontratatzea, prozedura irekiko lehiaketa sistema erabiliz, zerbitzuak osorik kudeatzeko.

- 1. KAPITULUA.- KONTRATUAREN OINARRIAK

I.- KONTRATUAREN HELBURUA.

1.1.- KONTRATUAREN HELBURUA.

Kontratuaren helburua da, Aretxabaletako Udalerriko Markole auzoan dagoen, Aretxabaletako kiroldegiaren kudeaketa osoa, emakida bidez esleitzea, eta gizarte bazterketa arriskuan edo langabezian dagoen biztanleriaren artean enplegua sustatzea.

Ondorio horietarako Aretxabaletako kiroldegiaren kudeaketa osoaz ondorengoa ulertzen da: kirol instalazioek berezko duten helburua, hau da, kirol eta jarduera fisikoaren praktika, betetzeko egoki diren lanak onartzea eta gauzatzea, herri izaerako zerbitzua den neurrian.

Lan horietan, era berean, aurreikusten dira instalazioen mantentze lana, garbiketa eta funtzionamendu egokia, beharrezko diren giza baliabideak, materialak, antolaketakoak edo zuzendaritzakoak eskura jartzea eta instalazioak erabiltzeagatik ezarriko diren diru kopuruak kobratzea.

Kontratuaren helburua bete ahal izateko, esleipendunak, esleipenaren xede diren instalazioak edo eraikina edukiko ditu eskura, eta bertan gerta daitekeenaren erantzule bakarra izango da, horretarako adierazitako epeekin bat etorritik.

Zerbitzua aurrera eramango den higiezinaren espazioen plano adierazleak eranstean dira **I Eranskinean**

1.2.KUDEAKETA EREMUA.



Kiroldegiaren funtzionamenduaren zeharkako kudeaketak, ondorengo jarduerak aurreikusten ditu zehazki:

1.2.1.ZERBITZUEN KUDEAKETA:

Kirol zerbitzuak osorik kudeatzen dira, eta jarraian egingo den zenbaketak ez du inolako mugapen izaerarik izango.

1.2.1.1.Sorospen Zerbitzua

- a) Sorospen zerbitzuak zehatz-mehatz bete beharko du indarrean dagoen legeria, erabilera kolektiboko igerilekuetan.
- b) Aurrerago deskribatuko diren kirol instalazioak irekita dauden orduetan emango den sorospen zerbitzua, erabiltzailea (ad. taldeak edota ikastetxeak) edo instalazio horietan aurrera eramango den jarduera edozein izanda ere (ad. Aisia, entrenamenduak edo beste batzuk)
- c) Zerbitzua emango da era berean, beharrezko den beste ordu batzuetan hau da, ekitaldi bereziak daudenean edota beste edozein behar dagoenean.
- d) Enpresa esleipendunak bermatu egin beharko du zerbitzua esandako ordutegian, edozein unetan eta gorabeheraren aurrean.

1.2.1.2.Kirol Jarduerak emateko zerbitzua

- a) Esleipendunak, instalazioetan aurrera eraman ahal diren zerbitzu guztiak emango ditu; horretarako egoki irizitako jarduera guztiak antolatu eta zuzenduko ditu eta haien zabalpena egingo du, beti ere Aretxabaletako udalaren kirol eta kultura politikarekiko beharrezko koordinazioaren kaltetan gabe.
- b) Intereseko kirol jarduerak sustatzea eta garatzea, bai esleipendunaren ekimenez bai Udalaren ekimenez
- c) Zerbitzuaren erabiltzaile eta bazkideentzat kirol jardueren egitaraua egitea eta kudeatzea, talde ezberdinen beharrak eta eskariak kontuan hartuz. Edozein eratarik Aretxabaletako Udalak eta herriko beste erakunde batzuek antolatu ahal dituzten kirola sustatzeko jarduera eta kanpainekin bat egiteko konpromisoa hartzen du.
- d) Bertako jarduera programa, Administrazioak aurrera eramango dituen programekin koordinatzea.

1.2.1.3.Harrera zerbitzuaz

- a) Esleipendunak emango duen zerbitzuak, informazioa eta erabiltzaileei eman beharreko arreta aurreikusiko ditu, bai eraikinena baita bertako instalazioena eta emandako zerbitzuena ere, eta instalazioak egoera onean egon daitezen eta jarduerak ondo koordinatuak antolatu daitezen zainduko du.



ARETXABALETAKO KIROLDEGIKO jardueraren ondorioz sortzen den lan administratiboa egin beharko du, hala nola, izen-emateak, bazkideak, txartelak, erreserbak, etab...

- b) Harrera zerbitzua kirol instalazioak herritarrei irekita dauden bitartean egongo da irekita (aurrerago zehazten dira ordutegiak)
- c) Zerbitzua emango da era berean, beharrezko den beste ordu batzuetan hau da, ordezkapenak egin behar direnean edo beste edozein behar dagoenean.

1.2.1.4.Hiru zerbitzuek komunean dituzten ordutegiak eta xedapenak

- a) **Ordutegia:** Instalazioak irekita egongo dira eta martxan gutxienez:
 - o Astelehenetik ostiralera: 8:00tik 21:30era
 - o Larunbatetan: 8:30etik a14:00ra eta 16:00tik 20:00ra
 - o Igande eta jaiegunetan: 9:00tik 14:00ra

Esandako ordutegiak barne daude.

Instalazioak itxi egingo dira, mantentze lanetarako, esleipendunak proposatu ondoren, Aretxabaletako Udalak onartuko dituen egunetan eta baldintzetan.

- b) Emakidadunak, Aretxabaletako udalak zehaztuko dituen, barne erregimeneko funtzionamendu eta erabilera arauak bete eta betearaziko ditu.
- c) Plegu honetan aurreikusitako gainontzeko guztiak edota, esleipendunak bere proposamenean eskaini ondoren, esleipen ondorioetarako aintzat hartu direnak; baita lizitazioaren helburua dela eta, Aretxabaletako Udalak agindutako guztiak.

1.2.1.5.Derrigorrezko erreserbak

Esleipendunak derrigorrez erreserbatu beharko du:

- o Erabilera askotako pista, erabilera askotako gelak eta Aretxabaletako ikastetxeek, ikasturteko astelehenetik ostiralera bitarteko ikastorduetan beharrezko dituzten igerilekuko kaleak.
- o Erabilera askotako pista, erabilera askotako gelak eta ikasturtearen barruan eskola kirolerako beharrezko diren igerilekuko kaleak, barne astelehenetik ostiralera bitarteko entrenamenduak eta aste bukaeretako lehiaketak, udalak hala erabakiz gero.
- c) Erabilera askotako pista, kirol taldeen eta beste talde batzuen entrenamendu eta lehiaketetarako (astelehenetik ostiralera), udalak hala irizten badio.
- g) 25 m.ko igerilekuaren 2 kale, ikasturteko ikastorduetan eskola-igeriketa kanpainarako beharrezko diren orduetan.
- h) Igerileku osoa, bertan antola daitezkeen lehiaketak jokatzeko.



- i) Udaleko Jarraipen Batzordea izango da, gerta daitezkeen gorabeheren erantzulea eta haiek konponduko dituena.
- j) Kirol taldeen erabilerari buruz zehaztu gabe egon daitekeen edo zalantzak sor ditzakeen edozein arazo Aretxabaletako Udalak erabakiko du. Aretxabaletako udalak, plegu hauen helburu diren instalazioak erabili ahal izango ditu, kirol, kultur edo beste edozein eratako jardueretarako.

Horrenbestez, esleipendunari jakinaraziko dio, ahalik eta azkarren eta edozein eratarata gutxienez 8 laneguneko aurrerapenez, instalazioak eta zerbitzuak beharrezko diren orduetan egokitzeko beharra.

Egindako erreserba eraginkorra izan dadin, esleipendunak erabiltzaile eta bazkideei jakinarazi beharko die, beraiekin hitzartutako egitarauan aldaketak izan daitezkeela Aretxabaletako Udalak zehaztutako herri intereseko arrazoiengatik.

Edonola ere, urtean ezingo da 15 egun baino gehiago erreserbatu.

1.2.2.- Instalazioak kudeatzea, mantentzea eta garbitzea.

- a) Instalazioen, altzarien eta kirol ekipamenduaren erabilera egokiaren erantzule bakarra esleipenduna izango da; horrenbestez haiek mantendu, zaindu eta konpondu edo aldatu egin beharko ditu. .
- b) Esleipendunak, gune eta instalazio guztien Mantentze, Garbiketa eta Kontrol Liburua edukiko du, udal ordezkariari erakutsiko diena, haiek eskatzen duten bakoitzean.
- c) Kiroldegian dauden gune eta instalazio guztien kontserbazio, ordezkatzeko, garbiketa eta mantentze gastu guztiak emakidadunaren kontura izango dira.

2.- EMAKIDA EPEA.

Aretxabaletako kiroldegiaren osoko kudeaketarako kontratuaren iraupena, lehiaketaren esleipen kontratua sinatzen denetik hasi eta 10 urtekoa izango da, eta beste bost urtez luzatu ahal izango da, 20 urteko mugara arte.

II. KAPITULUA.- GAUZATZE BALDINTZAK

3.- GAUZATZE BALDINTZAK

3.1.- Baldintza orokorrak.

3.1.1.- Kontratua, kontratistaren arrisku eta menturara gauzatuko da.

3.1.2.- Emakidadunak zuzenean emango du zerbitzua, bere baliabide eta langileekin. Baliabide eta langile horiek, gutxienez, egindako eskaintzan proposatutakoak izango dira.



Emakida enpresaren izenean, emango den zerbitzuari lotutako pertsonak ordezkatzeko badira, Aretxabaletako Udalarari jakinarazi beharko zaio; hark ez onartzea erabaki dezake, ordezkoko pertsona horrek ez baditu, ordezkatzeko duenaren ezaugarri teknikoak edo profesionalak betetzen, edota eskaintzan bete beharreko lanpostuari atxiki zitzaizkion ezaugarri teknikoak eta profesionalak ez baditu.

3.1.3. Esleipenduna behartuta dago emakida xede diren zerbitzuak bere kabuz ematera, beti ere lan horiek egiteko kontratatu ditzakeen pertsonen kaltetan gabe, plegu honetan eta onartutako eskaintzan ezarritako eran.

Esleipendunak ezingo dio beste hirugarren bati, emakida bera eman edo emakidaren helburu diren zerbitzuak azpikontratatu, aldez aurretik Aretxabaletako Udalarekin adostutako idatzizko akordiorik ez badago.

3.1.4. Emakidadunak, zerbitzuaren kudeaketa esleitzen denetik hasitako hilabeteko epean, gehienez ere, martxan jarriko duen Kirol Jardueren Egitaraua aurkeztuko dio Aretxabaletako Udalarari, hark onar dezan. Egitarau horrek, gutxienez, esleipendunak eskaintzan proposatutako jarduerak aurreikusiko ditu eta Aretxabaletako Udalak espresuki aurreikusteak eskatzen dizkionak.

Jardueren egitarauan, antolatutako jarduera bakoitza eta haien ordutegia jasoko da espresuki, baita ordutegi libreak ere, hau da, inolako jarduerarik gabekoak. Era berean, jarduera bakoitzaren ondoan zein kirol talderentzat dagoen zuzenduta adieraziko da; baita, zein adinekoentzat eta zein taldeentzat dagoen antolatuta ere, baldin eta dituzten ezaugarrien arabera, beste talde batzuentzat antolatzen badira. Taldekako jardueren programazioan, parte hartzaile kopurua adierazi beharko da, eta hala badagokio jarduera aurrera eraman ahal izateko gutxieneko kopuruak, adieraziz, gutxieneko kopuru hori osatzen ez bada jarduera ez dela gauzatuko, errentagarritasun, erabilgarritasun edo beste arrazoi batzuk tarteko.

Jardueren programazioa hiru hilabetez behin errebisatuko da.

3.1.5. Enpresa esleipendunak jarriko dituen langileen kostua, zergak, kuota fiskala, kontribuzioak eta kontrataren beste edozein eratako gastuak, esleipendunaren kontura izango dira.

3.1.6. Kontratua, Plegu honetan eta ARETXABALETAKO KIROLDEGIAREN KUDEAKETA OSOA ESLEITZEKO ADMINISTRAZIOKO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUAN ezarritakoarekin bat etorriko gauzatuko da. Aretxabaletako Udalarekiko harremana eta koordinazioa, Udalaren jarraipen batzordearen bitartez egingo da.

3.1.7.- Egutegia eta ordutegiak. Aretxabaletako udalak ezarriko ditu bai egutegia baita ordutegiak ere. Bata nahiz beste aldatuko balitz, emakidadunari adieraziko zaio. Aldaketaren ondorioz, emakidaren baldintza ekonomikoak aldatzen badira, Aretxabaletako Udalak egoki diren neurri ekonomikoak hartuko ditu baldintza ekonomiko horiek mantendu ahal izateko. Neurri horien artean leudeke prezioak igotzea, kalte-ordaina ematea, biak batera edota beste batzuk.



3.2.- Aretxabaletako udalak zerbitzuak erabiltzea.

Aretxabaletako udalak, plegu hauen helburu diren instalazioak erabili ahal izango ditu, kirol, kultur edo beste edozein eratako jardueretarako. Horrenbestez, esleipendunari jakinaraziko dio, ahalik eta azkarren eta edozein eratarata gutxienez 8 laneguneko aurrerapenez, ordutegiak eta zerbitzuak egokitzeko beharra.

Nolanahi ere urtean gehienez ere 15 egun erabili ahal izango ditu.

3.3.- Kirol eta fisiko izaerarik ez duten jarduerak

Kirolarekin zer ikusirik ez duten edozein eratako jarduerak egin ahal izateko Aretxabaletako Udalaren baimena beharko da eta antolatzen dituen erakunde edo taldearen ardurapean antolatuko dira.

3.4.- Langileak

3.4.1. Erabiltzaileekin harreman zuzena duten, emakidadunak atxikitako langile guztiek (monitoreek, irakasleek, harrerako langileek etab...) beharrezkoa den euskararen eta gaztelaniaren ezagutza eduki beharko dute, antolatutako jarduerak bietako edozeinetan aurrera eramateko.

Administrazioko langileek, aldiz, komunikazio idatzia bi hizkuntzetan egin ahal izateko beharrezkoa den ezagutza eduki beharko dute.

Enpresa esleipendunaren ordezkariak, instalazioaren eta Udalarekiko zuzeneko harremanaren ardura duenak, Europako Hizkuntzen Marko Orokorraren arabera C1 maila eduki beharko du.

3.4.2. Zerbitzua aurrera eraman ahal izateko, esleipendunak kontratatu ditzakeen langileek ez dute inolako kontratuzko harremanik sortuko Aretxabaletako Udalarekin. Langile horiek esleipendunaren ardurapekoak izango dira; berak gauzatuko ditu kontratuaren izaerari berezkoak zaizkion eskubide eta betebeharrak eta Aretxabaletako Udalak ez du inolako erantzukizunik izango, nahiz eta emakidadunak erabaki ditzakeen kaleratze, kontratu etete edo beste neurri batzuk emakida kontratuaren betetze, ez betetze, etete edota interpretazioaren zuzeneko edo zeharkako ondorio izan.

3.4.3. Enpresariak alta emango die Gizarte Segurantzari, kontratatuko dituen langileei, beren harremana Lan Zuzenbidepekoa denean. Gainera, laneko istripuak eta hala dagokionean, gorabehera komunak ondorioz sortutako aldi baterako ezgaitasuna estaliko dituen dokumentua sinatu beharko du, Laneko Istripuen eta Gaixotasun Profesionalen Mutuarekin edo Erakunde Kudeatzailearekin, gai horren inguruan legeriak ezartzen duena zehatz-mehatz betetz, eta beti ere esleipenaren iraupena berbera izango duen kontratuan oinarrituz.



3.4.4. Esleipendunak gainera, langile guztien, Gizarte Segurantzaren alta eman izanaren ziurtagirien kopiak eman beharko dizkio Aretxabaletako Udalarari, esleitutako zerbitzua martxan jarri baino lehen edo jartzen den egunean bertan.

Era berean, aurreko paragrafoak aipatzen dituen langileen alta, baja eta Gizarte Segurantzaren aldaketan parte hartzeak emango dizkio.

Hilero, esleitutako zerbitzuetara bideratutako, Lan Zuzenbidearen erregimenpeko langile guztien zerrenda aurkeztuko dio Aretxabaletako Udalarari.

- a) Gizarte Segurantzari egindako likidazioen kopiak, bakoitza bete kotizazio buletinetan, hau da, TC1 eta TC2 ereduetan, eta horien ordez, beren osagarriak edota etorkizunean haiek ordezkatuko dituztenak.
- B) Hilero ordaindutako soldaten erreziboen kopiak.

Esleipendunak ezingo du, emakidaren zerbitzura atxikitako langile kopurua aldatu Aretxabaletako Udalaren baimenik gabe; ezta bere eskaintzan aipatutako kategoria eta prestakuntza eta kontratuzko erregimenik ere.

3.5.- Aretxabaletako Udalarari eman beharreko informazioaz.

Emakidadunak, berari dagozkion funtzioak betetzen direla bermatzeko beharrezkoa den informazio guztia emango dio Aretxabaletako Udalarari. Eta bereziki behartuta dago:

- a) Gune eta instalazio guztien Mantentze, Garbiketa eta Kontrol Liburua eramatera. Bertan izaera horrekin egindako lan guztiak jasoko dira, eta instalazioetan egin beharreko lan guztiak zehaztuko dira, bai prebentziozkoak baita zuzentzaileak ere, lan programaren planifikazioa garbi adieraziz.

Liburuan garbi zehaztuko dira, atal berezi batean, I Eranskinean adierazten diren leku guztien (barne, kristalez estalitako fatxada zatiak , kanpoko terrazak eta eraikinera sartzeko arrapalak) eta ondasun guztien garbiketa lanen nondik norakoak. Era berean, beste atal berezi batean ur beroaren eta igerilekuko tenperaturaren zaintza eta mantentze lanen berri emango da, beti ere horretarako aurkeztu duen autokontrol planarekin bat etorriz.

- b) Aretxabaletako Udalarari, zerbitzuaren funtzionamendu eta garapenari buruzko txostena aurkeztera, hiru hilabete bakoitzaren amaieran, aurrera eramandako jardueren ebaluaketarekin eta hurrengo hiru hilabeterako antolatutako jarduera programarekin batera.
- c) Lan handiak nahiz txikiak egitea eskatzen duten instalazioetan zein egituretan izandako kalteen berri ematera.
- D) Oro har, Aretxabaletako Udalak eskatutako guztia betetzera eta deitutako bileretan parte hartzera



3.6.- Jendeari eman beharreko informazioaz eta publizitatea.

Kontratuaren izaera eta ARETXABALETAKO KIROLDEGIAREN herri jabetza kontuan izanik, esleipendunak Aretxabaletako Udalaren baimena izan beharko du, herritarrei informazioa emateko eta publizitatea egiteko eta esandakoaren kaltetan gabe:

- a) Ezingo du ARETXABALETAKO KIROLDEGIAREN barruko nahiz kanpoko itxura erabili publizitatea egiteko ezta enpresa emakidadunaren beste interes batzuetarako ere, aldeztatik Aretxabaletako udalak baimenik eman ez badio.
- b) Enpresa emakidadunak, ARETXABALETAKO KIROLDEGIAN aurrera eramango diren jardueren zabalkundea egiten duen euskarri guztietan, haren titularitate publikoaren aipamena egin beharko da.
- b) ARETXABALETAKO KIROLDEGIAN egingo den publizitateak udal arautegia bete beharko du.
- d) Errotulazio eta seinalizazio elementu guztietan, baita ARETXABALETAKO KIROLDEGIAREN izenean bertan ere, haren herri izaera aipatu beharko da, udal irizpideak eta arautegia jarraituz.
- e) Emakidadunak, bere kontura egingo du ARETXABALETAKO KIROLDEGIAK eskainitako zerbitzuen zabalpena, baita prezioena eta haietaz baliatzeko baldintzena ere. Zabalpen horretan, Aretxabaletako Udalaren nortasun korporatiboa ageri beharko da ezinbestean.
- f) Aretxabaletako Udalak, ARETXABALETAKO KIROLDEGIAK eskainitako zerbitzuak eta jarduerak zabaltzeko egoki irizten duen informazioa eman eta publizitatea egin ahal izango du, doan.

4.BALDINTZA EKONOMIKOAK.

4.1.- KANONA

Gastu Orokorrak eta Etekin industrialak kendu ondoren lortutako etekinen gaineko kanona eskainiko da. Kanon hori etekin horien %50ekoa izango da. Kanona urtero kitatu eta ordainduko da, esleipendunak aurreko ekitaldia ixten duenetik hasi eta hilabeteko epean. Horretarako, udalak beharrezko irizten duen dokumentazioa eskura jarri beharko du esleipendunak, eta bereziki ustiatetari dagozkion kontuak (Galerak eta Irabaziak eta Egoeraren balantzea) dagozkion Merkataritza Erregistroak behar bezala izapidetuta.

2012 urtean, esleipendunak Aretxabaletako kiroldegia ustiatzeagatik galerak izango balitu, udalak laguntza ekonomikoren bat ematea aztertu ahal izango du.

4.2.KONTRATISTAREN ORDAINSARIA



4.2.1.- Esleipendunaren ordainsaria, ARETXABALETAKO KIROLDEGIAREN erabiltzaileei, instalazioak erabiltzeagatik eta zerbitzuak emateagatik kobratuko zaizkien prezioek ezarriko dute.

Esleipendunak erabiltzaileei kobratuko dizkien prezioak, lizitatzailleek proposatuko dituzte eta erakunde esleipendunak onartu beharko ditu.

Proposamen ekonomikoan lizitatzailleek prezioen koadroa aurkeztu beharko dute, egoki irizten dituen erabiltzaile mota ezberdinen (bakarkakoak, familiarak, taldeak, eskolak, jubilatuek, bazkideak, bakarkako zerbitzuak, pasadizokoak, etab...) eta instalazioen arabera sailkatuko dena, eta beti ere lizitatzaille bakoitzak aurreikus ditzakeen kostuen estimazioen eta bazkide edo erabiltzaile kopurua kontuan izanik.

Esleipendunak egin beharko ditu, bere arrisku eta menturara, prezioen koadro bakoitzean aurkezten duen proposamenaren oinarri izango diren erabiltzaile eta bazkideen aurreikuspenak

Proposatuko diren prezioen koadroak 2012rako izango dira. Urtero berrikusiko dira esleipendunaren eta Aretxabaletako Udalaren artean, erabiltzaile/bazkide kopuruaren eta zerbitzuen eta instalazioen mantentze kostuen gehikuntza justifikatuaren arabera.

Berrikuspen horretan ez da aurreikusiko, esleipendun gertatu den prezioen koadroan egiten den aurreikuspenaz azpiko bazkide/erabiltzaile kopuruaren murrizketarik.

5.- KUDEAKETAREN ERREGIMEN EKONOMIKOA.

5.1.- USTIAPEN-KONTUA:

5.1.1.- ARETXABALETAKO KIROLDEGIAREN emakidaren ustiapen kontuak ez du, enpresa esleipendunaren berariazko kontuarekin zerikusirik izango eta independentea izango da.

5.1.2.- Urtero aurkeztu beharko da, Aretxabaletako Udalaren aurrean, baimendutako erakunde edo profesionalak behar bezala ikuskatu ondoren.

6.- INBERTSIOAK

Esleipendunak 200.000 euroko inbertsioa egin beharko du fitness gelako ekipamenduan. Ekipamendu hori Udalarekin adostasunean egingo da, eta gutxienez aurreikusiko ditu, lan kardiobaskularrerako makinak (cicloergometroak, korrika egiteko zintak, remoergometroak...) eta indarra garatzeko eta entrenatzeko tresneria.



Aretxabaletako
Udala